

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# UPV/EHUko IKERTALDEETARAKO LAGUNTZEN DEIALDIA

(2024)



**SARRERA**

Ikerketa UPV/EHUren funtsezko zeregina da, jakintza sortzaile, irakaskuntza oinarri, komunitatearen aurrerapenerako bide eta jakintza gizarteratzeko baliabide den aldetik. Horrela, bada, unibertsitateak bere egiten du helburu garrantzitsuenetako bat bezala ikerketa zientifiko, tekniko, humanistiko eta artistikoa garatzea, eta ikertzaileak prestatzea. Era berean, ikertaldeak sortu eta garatzea sustatzen du, eta kalitatea, transdiziplinitatea eta nazioarteko bikaintasun sareetan txertatzea bultzatzen ditu, bai eta beste erakunde, gizarte eragile edo enpresa batzuekin talde mistoak eratzea ere.

Laguntza hauen bitartez, areago, Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sarea osatzen duten gainerako eragileekiko lankidetzeta eta unibertsitateko ikertaldeen indarra ere hobetu nahi dira, deialdi lehiakorragoetan parte har dezaten; hala nola, Eusko Jaurlaritzaren Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako planaren programa ezberdinak, deialdi estatalak edo Europar Batasunaren deialdi ezberdinak.

UPV/EHUko ikertaldeetarako laguntzen 2024ko deialdi honetan, unibertsitate ikertaldeetarako laguntzen modalitate bi sartzen dira. Lehenengo modalitatea 2022 eta 2023 urteetan deitutakoaren antzekoa da eta ikertalde berriak sortzera bideratuta dago, bai eta alde aurretik finantziarioa amaituta dutenen ikertaldeen iraupenera ere. Oraingo honetan, bigarren modalitate bat aurkezten da, aurretik onartutako ikertalde batean sartuta ez zeuden ikertzaile doktoreak unibertsitate talde aktiboetan sartzera bideratua.

Oro har, UPV/EHUko taldeak aldi baterako bokazioaz sortu ohi dira, epe ertainean, euskal unibertsitate sistemako (aurrerantzean, EUS) ikertalde finkatu bihur litezkeelarik. Ildo horretan, bi deialdiak bateraezinak dira elkarren artean, hau da, ezin izango dira lehiaketa honetara aurkeztu 2021eko deialdian Eusko Jaurlaritzak aitortutako ikertaldeetan aritzen diren ikertzaileak, 2021eko irailaren 7ko 2021/4826 Aginduan deskribatu eta 2021eko irailaren 21eko EHAAan argitaratutako deialdian, 2022ko uztailaren 7an bere ebazpena argitaratu zelarik.

Hala, deialdi honetan urtebeterako finantzaketa lortzen duten ikertaldeek, bai ikertalde berriek, bai ikertzaileen gehikuntza finantzatuko luketen ikertaldeek, konpromisoa hartzen dute 2026-2029 aldirako EUSeko ikertalde finkatuen deialdirako eskaera aurkezteko, 2025erako aurreikusita.

Deialdi honetan onartutako unibertsitateko ikertaldeen indarraldia urte betekoa, 2025. urtekoa izango da, eta gehienez 700.000 euro erabiliko dira hori finantzatzeko. Finantzaketa dagokion aurrekontu-kredituaren kontura egingo da, 2023-2026 aldirako Bikaintasuneko Ikerketa Programa Kontratuaren barruan esleituta. Deialdiaren finantzaketa osoa, gainera, aldatu ahal izango da etorkizuneko aurrekontu eskuragarritasunen eta jasotako eskaeren arabera.

Horretara, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (aurrerantzean IGBB) aldeko txostena jaso ostean eta Gobernu Kontseiluak onetsi ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak (aurrerantzean IAE) erabaki du subentzioak emateko honako deialdi hau argitaratzea, ondoren zehaztuko diren baldintzetan.

**I. MODALITATEA: UNIBERTSITATEKO IKERTALDE BERRIAK****1. OINARRIA. HELBURUA ETA XEDEA**

Deialdi honen helburua ikerketa jarduerak erraztea eta bultzatzea da, bai eta UPV/EHUko ikertaldeek egindako ikerkuntzaren kalitate zientifikoa hobetzea ere, bost jakintza arloetan (zientzia, ingeniariaritzaren eta arkitektura, osasun zientziak, gizarte zientziak eta zientzia juridikoak, eta artea eta giza zientziak) ikerketak egiteko laguntza finantzarioak emanez.

Ikerkuntzarako ekintzen bidez, erdietsi nahi diren oinarritzko helburuak dira:

- a. Funtsezko ikerkuntza sustatu, jakintzaren maila handitzeko, bere horretan ondasuntzat jo nahi baita.
- b. Ikerketa estrategikoa sustatu, berrikuntza bultzatzeko, lehiakortasuna eta gizarte ongizatea areagotzeko elementua den aldetik.
- c. Unibertsitateak enprekin eta gainerako gizarte-eragileekin duen lankidetzaren ikerketa sustatu.
- d. Ikertalde sortu berriak sendo daitezen bultzatzea; izan ere, osatu berriak direnez, ez dute lortu esparru lehiakorragoko deialdietan lehiatzeko behar den bikaintasun maila.

Goian adierazitako hitzurrearen arabera, deialdi honen helburua da bikaintasunezko ikerketa garatu gura duten talde egonkorak sortzea, gerora EUSeko ikertalde finkatuetarako laguntzen deialdian lehia daitezen.

Deialdi honek, hortaz, ikertalde bakoitzari emandako laguntza ekonomikoa kuantifikatu eta esleitzea du helburu, zeinek proposatzen duen urtebeteko jardun programa burutzeko eta, behin osatuta eta aldeko balioespina lortuz gero, UPV/EHUK aintzat hartutako ikertalde bihurtzeko.

**2. OINARRIA. IKERTALDEEN EZAUGARRIAK**

2.1. Ikertaldeak egiaztatu beharko du ikertzaileen arteko harremana egonkorra dela; nolabaiteko koherentzia erakutsiz eta proiektu eta argitalpen komunitan parte hartuz.

Aurreko paragrafoan ezarritako betekizuna betetzearen salbuespena aztertuko da ebaluaziora aurkezten den ikertaldea eremu desberdinetatik etorritako ikertaldeetatik sortu denean eta diziplina arteko orientazio batekin misio komun batean lan egiteko elkartu direnean.

Ikertaldeak beste gune edo erakunderen bateko ikertzaileekin harremanak izan eta proiektu eta argitalpenak horiekin batera lantzen baditu, beste gune edo erakundeetako ikertzaileak kanpoko laguntzaile gisa hartu ahal izango da, baina ez dira ikertaldeko kideetat hartuko deialdi honetan parte hartzeko helburuetarako. Ikertaldeari laguntza ekonomikoren bat esleituko balitzaio, UPV/EHUri dagozkion taldeko kideen zenbatekoaren arabera kalkulatu da emandako laguntza ekonomikoa.

2.2. Talde eskatzaileak egiaztatu beharko du azken sei urteetan finantzaketa jarraitua jaso duela. Epe honetan zehar jasotako finantzaketa osoaren %25a izan beharko da, gutxien dela, UPV/EHUtik kanpoko iturburuetatik etorritako finantzaketa.

Unibertsitatekoak ez diren beste ikertzaile batzuekin batera partekatutako proiektuei dagokienez, hauen ekarpena proportzionaltasunaz konputatuko da taldean diren ikertzaileen kopuruarekiko. Finantzaketa da ikerketa jarduerak edo ikertzaileak kontratatuzko edozein motatako laguntza, lehiaketa bidezko deialdietan lortutakoak, bai eta eskatzaileek ikerketa jarduna egitea eragingo lukeen beste edozein laguntza ekonomikoa ere.

Aurreko paragrafoan ezarritako baldintzak betetzetik salbuetsi ahal izango dira ikertalde sortu berriak, baldin eta honako egoera bi hauetan baleude:

- a. Ikertalde sortu berriek edo osatzekotan direnak, baldin eta bere sail edo arlo

tematikoan ikertalde finko aitorturik ez badago edo ikerkuntza tradizio baxuko arloetakoak badira.

- b. Ikertaldeak aurkeztutako proposamenen ikertzaile nagusi gisa (IN) proposatzen diren pertsonak ez dutenean izaera horrengatik finantzaketarik lortu, ez EUSeko, ez EHUko ikertalde finkatueterako, lehenagoko laguntza deialdietan; eta, gainera, beren burua ikertaldeko kideztat proposatzen duten pertsonen erdiek, gutxienez, ez badute parte hartu aipatutako deialdiren batean aintzat hartutako ikertaldearen proposamenetan.

Egoera bi hauetakoren batean egon eta laguntza lortu nahi duten ikertaldeek idazkia bat bidali beharko dute IAera ([igz.ikerketataldeak@ehu.eus](mailto:igz.ikerketataldeak@ehu.eus)) eskariak aurkezteko epea amaitu aurretik, ikertaldeko ikertzaile nagusiak sinatuta, ikertaldea nortzuek osatuko duten eta zeintzuk ikerketa ildo proposatuko dituen, laburki azalduta. Hala eskatuko balitzaio, eskaria koordinatuko duen arduradunak behar besteko azalpen eta informazio agertu beharko du aurreko baldintza hauek egiaztatzeko.

- 2.3. Gutxieneko taldea hiru ikertzaile doktorek osatu beharko dute, horietako bi 3.1 oinarriaren a, b edo c ataletan jasotako kidegoetakoak izanik. Gutxienez pertsona horietako bik a edo b ataletan jasotako kolektiboetakoak izan beharko dute, eta horietako batek koordinatuko du ikertaldeko ikertzaile nagusi (IN) gisa jardungo duen eskaera. Gutxieneko taldea osatzen duten hiru kideek mantendu beharko dute UPV/EHUrekiko kontratu edo lotura laguntza gauzatzeko epe osoan zehar.
- 2.4. Ikertaldeek izan ahal izango dute ikertzaile nagusi kide bat, lehenengoa egon ez eta ikertzaile nagusi arituko dena, beti ere 3.2 oinarrian eskaturiko baldintzak beteta.

### **3. OINARRIA. IKERTALDEAK OSATZEN DITUZTEN PERTSONEN BALDINTZAK**

3.1. Honako kide hauek osatuko ikertaldeak lehiatuko ahal dira laguntza hauetan:

- a. UPV/EHUri modu iraunkorrean lotutako lan kontratuduna edo funtzionarioa.
- b. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 23. artikuluko modalitatean kontratatutako ikertzaileak (itzal handiko ikertzaileen kontratua); Ramon y Cajal programako kontratupeko ikertzaileak UPV/EHU-n; Ikerbasque programako ikertzaileak; UPV/EHU-CSIC zentro mistoetako doktore atxikiak; irakasle atxikiak; irakasle laguntzaile doktoreak; atxikiak izandako bitarteko kontratudun irakasleak; unibertsitate ospitaletako irakaskuntza unitateetako irakasle elkartu doktoreak.
- c. Pertsonal ez iraunkorra, UPV/EHUrekiko lotura Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 legearen 21. (doktorego aurreko kontratuak) eta 22. (Zientzia eta teknologiaren espainiar sistemara sartzeko kontratua) artikuluetan ezarritako kontratu modalitateen bidez dutena.

Prestakuntza bidean dauden doktorego aurreko ikertzaileen kasuan, doktorego tesiaren zuzendariak egon behar du eskariaren barruan.

- d. Irakasle elkartu doktoreak eta lanaldi osoko bitarteko lan kontratudun irakasleak, kasu bietan b. puntuari sartzeko ez direnak, eta ikerketarako laguntzaile akademikoak, unibertsitateko arautegian ezarritako prozeduren arabera. Kidego hauek ez dira zenbatuko gutxieneko ikertaldearen osaerari dagokionerako. Taldeari laguntza ekonomikoa ematekotan, kidego hauek ere ez dira sartuko ezarritako zenbatekoa kalkulatzeko.

3.2. Ikertzaile nagusiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- i. Doktore izatea.
- ii. Arduraldi osoa izatea. Salbuespenez, arduraldi osokoa izateko baldintza bazterrean utzi ahal da IGBBren txosten arrazoitua tartean dela, ikertzailearen garrantzia zientifikoari begiraturik.

iii. 3.1.a edo 3.1.b. oinarrian bildutako kidegoetako bateko kide izatea.

iv. Gutxien dela, ikertzaile nagusietako batek kontratu harremana izango du UPV/EHUrekin, eta unibertsitateak bere gain hartuko ditu proiektuaren kudeaketa instituzionalari lotutako funtzioak (sinadura UPV/EHUren izenean, organikoaren maneiua, etab.).

3.3. Inork ezin izango du:

- a. Aldi berean deialdi honetako ikertalde batean baino gehiagotan parte hartu. Aldi berean parte hartzeak bi ikertaldeak utziko ditu kanpoan.
- b. EUSeko ikertalde finkatueterako 2021eko deialdian aintzat hartutako ikertalde bateko kide izatea.
- c. UPV/EHUren 2023, 2022 edo 2021eko deialdiaren "ikertaldeetarako diru laguntzak" modalitateko finantziatorik daukan talde bateko kide izatea.
- d. Ikerketa proiektu aktibo batean baja eskatu, aurreko puntuetan aipatutako ikerkuntza laguntzeko deialdietarako eskariak aurkezteko epean, deialdi honetan parte hartzeko asmoz.

3.4. Ezin izango dituzte deialdi honen baitako laguntzak eskatu, egoera hauetakoren batean dauden pertsonak:

- a. Epai irmo bidez dirulaguntza publikoak jasotzeko ezintasuna dutenak.
- b. Dirulaguntzak itzultzeagatik betebeharrak egunean ez dituztenak.
- c. Ebazpen irmo bidez zigortuta daudenak, lege honen edo beste lege batzuen arabera, diru laguntzak ez jasotzera.

3.5. Eskaera ez onartutzat emango da ikertzaile nagusiak aurreko baldintzak betetzen ez baldin baditu.

3.6. Aurreko baldintzak betetzen ez dituen ikertzaile nagusi kideak edo ikertaldeko kideak eskaeratik kanpo geratuko da.

#### **4. OINARRIA. IKERTALDEETARAKO LAGUNTZEN EZAUGARRIAK**

4.1. Laguntza hauen helburua da ikertaldeen oinarritzko funtzionamenduaren gastuak estaltzea, hau guztia UPV/EHUtik kanpoko erakundeetatik bere ikerketa jarduna burutzeko lortuko duten finantzaketaren osagarri.

4.2. Laguntzak urtebeterako programatutako ikerketa jarduerara egongo dira bideratuta eta Euskadi 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean eta Europa 2030 estrategian diseinatutako estrategien ildo berekoak izan beharko dira. Izan ere, horietan garatu beharreko ikerketa ildoak adierazten dira, bai eta produktibitate konpromisoa eta sortzen diren beharrak estaltzeko dirulaguntzen plana ere.

4.3. Laguntzen kopuru eta zenbatekoak IGBBren proposamenarekin bat etorrita zehaztuko dira zenbat eskari egin diren, aurkeztutako aurrekontuak eta ikertaldeen balioespena ikusita. Taldea deuseztu edo laguntzari uko eginez gero, finantzatutako epea amaitu baino lehen, kontsumitu ez den laguntza kenduko zaio eta taldeari laguntza emateko erabakian jasotako ondorengo urteetarako emakidak ezabatuko dira.

#### **5. OINARRIA. IKERTALDEETARAKO LAGUNTZEN IZAERA**

5.1. Honako hauetarako eskatu ahal izango da laguntza:

- a. Ikertzaileak kontratatzeko laguntzak edo beste deialdi batzuetatik etorritako pertsonala elkar finantzatzekoak. Kontratuak egiteko, irakasle eta ikertzaileak kontratatzeko UPV/EHUk duen araubidea aplikatuko da. Ez dira hautagarriak izango administrazio lanak egiteko langileak kontratatzeko gastuak.

- b. Ohiko azpiegitura zientifikoa UPV/EHUren Kontratazio eta Erosketa Zerbitzuaren bidez erosi ahal izango da nahitaez. Horrela egin ezean, hau da, erosketa egiteko ez bazaio UPV/EHUk ezarritako prozedurari jarraitu, taldeari laguntzaren zati bat kendu ahal izango zaio, hain zuzen ere, erosketa horren zenbatekoa. Ekipamendu informatikoaren erostea hautagarria izango dadin, ikerketaren xedeetarako beharrezkoak diren beste edozein ekipamenduren lagungarri izateko garrantzitsuak direla justifikatu beharko da.
- c. Material suntsikorra.
- d. Bidaiak eta dietak, barne hartuta ikerketa jardunari zuzenean lotutako edozein motatako joan-etorrietako gastuak, biltzarretako parte hartzeak (eta izen-ematearen gastuak) eta beste zentro batzuetan egindako egonaldi laburrak.
- e. Azpikontratazio gastuak deialdian diruz laguntzen diren ekintzetarako. Hau, gehienez, emandakoaren %25a ahal izango da, hala ere, behar bezala justifikatutako kasuetan eta aurretiaz motibatutako eskaera aurkeztuta zenbateko hori gehitu ahal izango da.
- f. Beste gastu batzuk, aurreko partidetan aipatu ez diren kontzeptuei dagozkienak eta egoki justifikatu beharko direnak. Atal honetan sartu ahal izango dira: ekipamendu zientifikoa konpontzeko eta egoera onean izateko egindako gastuak, UPV/EHUren Zerbitzu Nagusiek egindako mantentze kontratuetan jasota ez badaude.
- g. Egin beharreko gastua ez bada aurreko ataletan zehaztutakoa, baimena eskatu ahal izango zaio Ikerketaren arloko Errektoreordetzari ontzat jo dezan.

5.2. Laguntzaren indarraldiko azken 6 hilabeteetan nahitaezkoa izango da IAEren onarpena azpiegitura zientifikoa erosi eta pertsonala kontratatu ahal izateko, alde zuzenetik berariazko eskaria eginik.

5.3. Ikertaldearen gastutzat hartuko diren gastu bakarrak izango dira 4.2. oinarrian finantziarako zehaztutako epearen barruan egindakoak, hau da: epe horren barruan benetan ere gauzatutako erosketa, bidaiak, lan eta abarrek eragindakoak.

5.4. Baimen eskaera, 5.1 eta 5.2 ataleko g letran adierazitakoa, Ikerketako Gestiorako Zuzendaritzari egin beharko zaio. Eskaera horretan behar bezala adieraziko dira eskatutakoa justifikatzen duten arrazoiak.

## **6. OINARRIA. IKERTALDE BERRIETARAKO ESKAERAK AURKEZTEA**

6.1. Ikertaldeek bide telematikoz bete beharko dute eskaria osatzeko formulazioa honako aplikazio hau erabiliz: <http://www.ikerketa-taldeak.net>

Horretarako, ikertaldeko ikertzaile nagusiak alta eskatu beharko du erabiltzaile gisa eta aipatutako aplikazioan zehaztutako jarraibideak bete beharko ditu. EUSeko Ikertalde Finkatuertarako laguntzen aurretiazko deialdi batean akreditatutako talde baten kasuan edo UPV/EHUko taldeetarako laguntzen deialdien kasuan, ikertzaile nagusiak deialdi horretan aurkeztutako eskaeran emandako informazioa berreskuratu ahal izango du.

6.2. Ikertzaile nagusiek zein bere ikertaldeari buruzko informazioa jarriko du aplikazioan, zehazkiago:

a) Eskabidearen datuak:

- Ikertzaile nagusiaren datuak.
- Ikertaldearen datu orokorrak eta osaera.
- Ikertaldeak 2019tik laguntza eskatzeko datara arte egindako jarduera zientifikoari buruzko memoria: ekoizpen zientifikoa, hezkuntza gaitasuna, ikerketarako lortutako finantza iturriak eta jakintzaren transferentziarako jarduerak.
- Jarduera programa, helburuak, lan plana, laguntzaren burutze epea (2025) ezinbestean hartu beharko duena, honetarako kronograma eta mugarri nagusiak. Ikertaldearen

helburuak, ekoizpen zientifikoari, prestakuntzari, transferentziari eta finantza iturriei dagokienez, kuantifikatu beharko dira, laguntzaren helburuko epean zehar erdietsi beharreko adierazleak erabiliz.

- 2025 eperako eskatzen den aurrekontua. Bosgarren oinarrian deskribatu bezala, diruz lagun daitezkeen kontzeptuetan eskatutako zenbatekoak zehaztu beharko dira. Gainera, zenbateko hauek justifikatu beharko dira zein bere helburu zehatza xehe-xehe azalduz.

b) Ikertzaile nagusien curriculum laburra, PDF formatuan, unibertsitate edo ikerkuntza gaitako eskumenik duen edozein administrazioen formatu arautuan aurkeztu beharrekoa.

Ikertaldeko gainerako kideen ekarpen zientifiko nagusiak ikertaldearen jarduera zientifikoaren memorian jasoko dira, eskaria egiteko inprimakian. Ikerketaren arloko errektoreordetzak ikertaldeko edozein kideri eskatu ahal izango dio informazio gehigarria.

6.3. Behin eskaria oso-osorik bete eta gero eta datu guztien agerpena amaituta, **PDF** bat egin behar da **behin betiko dokumentuarekin**, ikertaldeko ikertzaile nagusiek eta ikertaldeko kide guztiek elektronikoki sinatu beharko dutena, 14. oinarrian adierazitakoari jarraiki.

## 7. OINARRIA. IKERTALDEEN ESKAERAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Deialdiaren helburuarekin bat etorrita, ebaluazio prozesuak jarraian adierazitako irizpideak bete beharko ditu.

Irizpide bakoitzak zehaztuta dauka ebaluazio osoarekiko duen pisua.

Eskatzaileak eskaeran adierazitako ekarpenen kalitate adierazleak aurkeztu beharko ditu (aldizkariak bere ikerketa eremuan duen inpaktua, kokapena, kuartila, eta abar).

7.1. Ikertaldearen irizpide eta adierazleak.

**1. irizpidea: Iherketa zientifikoaren kalitatea.** 2019-2024 epea. Ekoizpen zientifikoaren eta produktibitatearen bikaintasuna balioetsiko da ikertaldearen tamaina eta lortutako baliabideen arabera. Kontutan hartuko dira argitalpenak (liburuak, liburu kapituluak, berrikusketak, ebaluaziodun argitalpen elektronikoak eta aldizkari zientifikoetako artikuluak), ponentzia zientifikoak edo beste edozein adierazle, norberaren arlo zientifikoan garrantzitsua bada. Argitalpenak balioesteko arlo zientifiko bakoitzean diren zerrenda eta ranking zientifikoak eta aipuetarako adierazleak erabiliko dira, ebaluatzerakoan arlo bakoitzaren zer-nolakoak kontutan izan behar direlarik.

Irizpide honek % 35aren pisua izango du puntuazio osoan.

Talde sortu berriek 2.2 oinarriaren a. eta b. ataletan deskribatutako egoeretako proposamenen bat egiten badu, horren irizpidea amaierako puntuazioan % 30 murriztuko da.

**2. irizpidea: Ikertaldearen gaitasuna ikertzaileak prestatzeko.** 2019-2024 epea. Doktorego aurreko eta doktorego ondoko kontratatuen kopurua, zenbat tesi eta nazioarteko tesi, graduondoko eta master egin diren balioetsiko da, ikertaldeko kideek zuzenduta, edo ikertaldearen ikerketa ildoetara loturik sustatutako zenbat doktorego, bai eta prestakuntzaren arloko bestelako ekintzak ere, master amaierako lanak zuzentzea, esaterako.

Irizpide honek % 15aren pisua izango du puntuazio osoan.

Talde sortu berriek 2.2 oinarriaren a. eta b. ataletan deskribatutako egoeretako proposamenen bat egiten badu, horren irizpidea amaierako puntuazioan % 13ra murriztuko da.

**3. irizpidea: Finantzaketa eta jakintzaren transferentzia.** 2019-2024 epea. Honako hauek baloratuko dira:

- 1) Ikerketa proiektuetarako deialdi lehiakorretan lortutako finantzaketa eta lortutako zenbatekoa, bai eta sare tematikoetan eta ekintza integratuetan parte hartuz ere; kontutan hartuta, bereziki, proiektuen lidergoa.

- 2) Ikertaldearen ikerketa emaitzak, patenteen eskaerekin eta erabiltzeko ereduekin neurtuta, bai eta ikerketaren emaitzarekin lotutako spinoff enpresen sorrerarekin ere. Irizpide honen atala da patenteen ustiapen maila.
- 3) Jakintzaren transferentzia helburu, kontutan hartuta administrazio publiko edo enpresekin sinatutako ikerkuntzarako edo jakintzaren transferentziarako kontratu edo hitzarmenen bidez egindako ekintzak, ikerkuntzaren gestionatzeko unibertsitate, institutu, ikergune eta bestelako gestio bulegoetan tramitatuta.
- 4) Dibulgazio zientifikorako eta ikerketaren gizarte hedapenerako jarduerak, publiko orokorrari zein komunitate zientifikoari bideratutakoak.

Ez dira atal honetan konputatuko, zeinek bere arloan jakintzaren hobetze nabarmenik ez lekarketen aholkugintzak, arkitektura edo ingeniarietako oinarritzako proiektuak eta beste.

Irizpide honek % 20aren pisua izango du puntuazio osoan. Talde sortu berriek 2.2 oinarriaren a. eta b. ataletan deskribatutako egoeretako proposamenen bat egiten badu, horren irizpidea amaierako puntuazioan % 17 murriztuko da.

**4. irizpidea: Lanaren helburuak eta plana.** Baloratuko dira:

- 1) Ikertaldearen helburuak: hauen definizioan, kalitate zientifikoa, berritzailetasuna eta proposatutako lan planarekiko koherentzia.
- 2) Lan plana: lan planaren definizioa eta logika, bai eta bere bideragarritasuna ikertaldea osatzen duten lagunen esperientzia aintzat hartuta.
- 3) Laguntza gestionatzeko planarekiko hautabidezko proposamena, espero gabeko emaitzak eta ustekabeen gerta litezkeen bestelako egoerak gertatuta.
- 4) Eskatutako aurrekontua noraino den egoki proposatutako helburuekiko eta lortu nahi diren emaitzek norainoko eragin eta inpaktua izango duten arlo sozioekonomikoan eta teknologikoan.

Irizpide honek % 17aren pisua izango du puntuazio osoan.

Talde sortu berriek 2.2 oinarriaren a. eta b. ataletan deskribatutako egoeretako proposamenen bat egiten badu, horren irizpidea amaierako puntuazioan % 22ra murriztuko da.

**5. irizpidea: ikertaldearen kudeaketa proposamenaren ebaluazioa.** Honako hauek baloratuko dira:

- 1) Ikertaldearen osaera, egitura, diziplinartekotasuna eta koherentzia, proposatutako helburuekiko.
- 2) Emaitzen dibulgazio zientifikoa, jendearen eskura jarritz taldearen ikerketa jardueraren komunikazio, hedapen edo didaktika programa edo ekintzen bidez.

Irizpide honek % 8aren pisua izango du puntuazio osoan.

Talde sortu berriek 2.2 oinarriaren a. eta b. ataletan deskribatutako egoeretako proposamenen bat egiten badu, horren irizpidea amaierako puntuazioan % 13ra murriztuko da.

**6. irizpidea: Irizpide osagarriak.** Honako hauek baloratuko dira:

- 1) Emakumeen presentzia: ikertaldeko kide gisa % 40ko edo hortik gorako emakumeen ehunekoa egiaztatzen duten taldeei puntu bat emango zaie; 0,5 puntu ehuneko hori % 30ekoa edo hortik gorakoa eta % 40tik beherakoa denean; eta atal honetan ez da punturik lortuko ehuneko hori % 30era iristen ez denean. Halaber, puntu bat emango da ikertzaile nagusia emakumea bada, eta, bestela, 0,5 puntu ikertzaile nagusietako bat emakumea bada.
- 2) Proposamena Garapen Iraunkorreko Helburuekin (GIH) bat etortzea: gehien dela, puntu bat emango zaie Agenda 2030eko GIHetako batekin lerrokatuta dagoela behar bezala justifikatuko lukeen proposamenari.
- 3) Talde sortu berriak sustatzea: bi puntu emango zaizkie, ikertalde sortu berriek 2.2 oinarriaren a. eta b. ataletan deskribatutako egoeretako batean egindako proposamenei.



**II. MODALITATEA: IKERTZAILEAK TALDE AKTIBOETAN SARTZEA****8. OINARRIA. GIZARTERATZEKO LAGUNTZEN XEDEA**

8.1. Laguntza hauen bidez lagundu eta bultzatu nahi da unibertsitateko irakasle-ikertzaileak, ikerkuntzaren inguruko edozein jardun egiten has daitezen, jakintzaren bost arloetan: zientziak, ingeniaritza eta arkitektura, osasun zientziak, gizarte eta lege zientziak eta artea eta giza zientziak.

8.2. Helburu honek alderdi bitarikoa du:

- UPV/EHU berriki kontratatutako ikertzaileak ikertaldeetan sartzen laguntzea.
- Ikerlanari ekiten laguntzea hainbat arrazoiengatik ikertalde batean ez dauden unibertsitateko irakasle doktoreei.

**9. OINARRIA. GIZARTERATZEKO LAGUNTZEN EZAUGARRIAK**

9.1. Proposatutako ikerlana egingo da nahitaez eskaera aurkezteko unean aitortua eta jardunean dagoen ikertalde baten barnean. Horretarako, ikertalde aktiboko ikertzaile nagusiak eskatuko du laguntza, 11. oinarrian adierazten den bezala.

9.2. Ikertaldean sartzeko eskaera hau aurkezten duen talde aktibo bateko ikertzaile nagusiak, pertsona batek edo gehiagok, konpromisoa hartzen du hurrengo ikertalde deialdian parte hartzeko 2025ean, bai EUSeko talde finkatuen deialdian, bai UPV/EHUko ikertalde deialdian. Halaber, eskaera horretan, ikertaldearen parte gisa, deialdiko modalitate honetan lortutako laguntzaren bidez taldean sartuko diren pertsonak mantentzeko konpromisoa hartzen du.

9.3. Ikertaldera sartzeko prozedura:

- UPV/EHUko ikertalderi laguntzeko 2021, 2022 eta 2023 uteetako deialdietan aitortutako ikertalde kasuan, dokumentu horrek berak balioko du deialdian sartutako ikertzaileen inkorporazio eskaera gisa.
- Euskal Unibertsitate Sistemako ikertalderi laguntzeko 2021eko deialdian aitortutako ikertalde kasuan, dokumentu horri gehituko zaio Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Ikerkuntzako zuzendariari zuzendutako inkorporazio eskaera.

9.4. Emango den gehieneko dirulaguntza 3.500 eurokoa izango da lanean hasi den pertsona bakoitzeko, alde batera utzita lanean hasia den edo 2025ean hasia proposatzen den.

9.5. Laguntzaren gehieneko iraupena izango da, kasuan kasuko ikertaldearen indarraldiaren iraupen bera.

9.6. Eskaera egin duen ikertaldea izango da laguntzaren hartzailea, bertan hasiko baitira lanean proposatutako ikertzaileak.

9.7. Laguntzak edozein motatako gastuetan erabili ahal izango dira, baldin eta 5. oinarrian zerrendaturik bada eta laguntzaren xede diren jardueretan sortutakoak direla justifikatzen bada.

**10. oinarria. IKERTALDEAN SARTZEKO PROPOSATUTAKO PERTSONEN EZAUGARRIAK**

10.1. Ikertalde aktibo bateko kide izateko proposatzen diren pertsonak honako atal hauetan ezarritako baldintza guztiak bete beharko dituzte:

- UPV/EHUrekin kontratu harremana izatea.
- Doktore izatea.

- c. Irakasle eta ikertzaileen kolektibo hauetako batekoa izatea:
- i. UPV/EHUri modu iraunkorrean lotutako lan kontratuduna edo funtzionarioa.
  - ii. Pertsonal ez iraunkorra; honi dagokionez, UPV/EHUrekiko kontratu edo loturak 2025eko abenduaren 31ra artekoa izan behar du.

Atal honetan sar daitezkeen kolektiboak gorabehera, kategoria honetatik kanpo gelditzen dira espresuki:

- i. UPV/EHUrekin loturiko pertsonala, Zientzia, teknologia eta berrikuntzaren 14/2011 legearen 21, 22 eta 23. artikuluetan (2022ko irailaren 6an eraldaturik) eta 32/2021 Legegintzako Errege Dekretuaren xedapen gehigarrian jasotako kontratu mota ezberdinen bidez.
  - ii. Irakasleak ordezkatzeko plazak betetzen dituzten langileak.
- d. UPV/EHU n arduraldi osoz aritzea. Bi salbuespen daude dedikazioan:
- i. Unibertsitateko ospitaleetako irakaskuntza unitateetako irakasle elkartuak eta lanpostu hutsetan dauden bitarteko lan kontratudun irakasleak, betiere doktore badira.
  - ii. UPV/EHUraren lehenengo mailako atxikipena duten Ikerbasqueko langileak.

10.2. Ikertalde aktibo batean sartzeko hautagarriak izango dira bai 2025ean sartzen diren pertsona berriak, bai, talde aktibo gisa aintzatetsi ondoren, 2022an, 2023an edo 2024an sartu direnak, baldin eta ikertaldeko ikertzaile gisa jarraitzen badute 2025. urtean osorik.

10.3. Berariaz baztertzen da honako egoera hauetakoren batean dauden pertsonak laneratzeko eskaera:

- a) UPV/EHUko ikertaldearen edo euskal unibertsitate sistemako talde finkatuen deialdietan parte hartu izana 2021etik aurrera.
- b) Pertsona batek ezin izango du deialdiaren eskaera batean baino gehiagotan parte hartu.

## **11. OINARRIA. IKERTALDERA SARTZEKO ESKAERAK AURKEZTEA**

11.1. Laguntza hau ikertalde aktiboko ikertzaile nagusiak eskatuko du, horretarako sortutako eskabide inprimakia erabiliz.

Sartzeko eskaerak bi fasetan egingo dira:

- a) I. fasea: deialdi hau argitaratzen den unean UPV/EHUk (GIUen kasuan) edo Eusko Jaurlaritzak (GICen kasuan) baimendutako alta duten pertsonentzako laneratzeko laguntza eskatu ahal izango da.
- b) II. fasea: 1. fasean epez sartu ezin izan ziren alta berrietarako laguntza eskatu ahal izango da, betiere 9.3 oinarrian deskribatutako baldintzak betetzen badira.

11.2. Eskaera dokumentuan laburbilduta azalduko dira, ikertaldean dagoeneko edo gerora sartuko den pertsonak egingo dituen ikerlanak, lan horiek laguntzaren indarraldiaren barnean egingo dira nahitaez. Jarduera horiek 2025. urtean egin beharko dira nahitaez, laguntzaren indarraldia izango baita.

11.3. Ikertalde berean pertsona bat baino gehiago sartzea proposatzen bada, eskaera inprimaki bakarria aurkeztu beharko da, sartu nahi den pertsona adina inprimaki dituen. Inprimakiak ikertzaile nagusiaren sinadura bakarria izango du, inprimaki bakoitza ikertaldera sartu beharreko pertsonak sinatu beharko duenarik. Sinadura guztiek

elektronikoak izan beharko dute beti, eta aitortutako ziurtagiri baten bermea izan beharko dute.

## **12. oinarria. IKERTALDERA SARTZEKO ESKAERAK EBALUATZEA ETA EMATEA**

12.1. Finantzatzeko proposamenak aukeratzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- a. Ikertaldeak dagokion deialdian lortutako balorazioa (70 puntu).
- b. Ikertaldera sartuko den ikertzailearen curriculum (CVA FECyT eremuan <https://cvn.fecyt.es/editor/>), kolektibo bakoitzaren kategoria profesionalaren arabera kalkulatu dena (15 puntu).
- c. Ikertalde hartzailearen esparruan sartu beharreko pertsonak garatu beharreko jarduera baloratzea (15 puntu).

12.2. Ikertaldean hasi ahal izateko, eskaerak 60 puntu lortu behar ditu gutxienez.

12.3. EUSeko ikertalde finkatuetan sartzeko eskabideen kasuan, laguntza ez da gauzatuko Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren onarpena izan arte.

## PROZEDURA OROKORRA

### 13. OINARRIA. ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA

- **I. modalitatea: UNIBERSITATEKO IKERTALDE BERRIAK**

Laguntza-eskabideak aurkezteko epea **2024ko uztailaren 1ean** hasi eta **2024ko uztailaren 24an** amaituko da, **13:30ean** (Espainako penintsulako ordua).

- **II. modalitatea: IKERTZAILEAK TALDE AKTIBOETAN SARTZEA**

- **I. fasea** : Laguntza-eskabideak aurkezteko epea **2024ko uztailaren 1ean** hasi eta **2024ko uztailaren 24an** amaituko da, **13:30ean** (Espainako penintsulako ordua).
- **II. fasea**: Laguntza-eskabideak aurkezteko epea **2024ko azaroaren 4an** hasi eta **2024ko azaroaren 22an** amaituko da, **13:30ean** (Espainako penintsulako ordua).

### 14. OINARRIA. ESKAERAK EGITEKO ERA

14.1. Eskabideak egiteko, 6.3 oinarrian aipatzen den inprimakia erabiliko da I. modalitatearen kasuan, eta 11.1 oinarria, II. modalitatearen kasuan.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 14.e) artikuluan adierazitakoaren arabera, eta bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin (erabaki horrek onartu egiten ditu interesatuak UPV/EHUrekiko harreman elektronikoetan identifikatzeko eta sinadura elektronikoa erabiltzeko jarraibideak, bai eta erakunde horretan lanean ari diren pertsonak identifikatu eta sinadura elektronikoa erabiltzekoak ere), eskaera aurkeztu behar da UPV/EHUko erregistro elektronikoaren bitartez: <https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>. Bertan sartuta, "Jasotzailea" atalean "Ikerketaren arloko Errektoreordetza" aukeratu behar da eta, bigarrenez, "Ikerketa taldeak (U02000424)", zehaztuz "eskatzen du" atalean "UPV/EHUko ikertaldeak 2024 I. modalitatea" edo "UPV/EHUko ikertaldeak 2024 II. modalitatea". Identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili beharko da: UPV/EHUko langile txartela, Izenperen ziurtagiri digitala, NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Ziguaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).

Eskaria aurkeztutzat joko da baldin eta, deialdian eskatzen den dokumentazio guztia elektronikoki erregistratu bada.

14.2. Dokumentazioa UPV/EHUK darabiltzan bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan edo ingelesez aurkeztu ahal izango da.

Ahal bada, ebaluazioa eskaera egiten den hizkuntzan egingo da. Ebaluazioak ezin badira euskaraz egin, gai horretan adituak diren eta hizkuntza hori ezagutzen duten ebaluatzailerik ez dagoelako, IAEk aginduko du euskaraz aurkeztutako eskaerak gaztelaniara itzultzea. Itzulpena jaso eta gero, posta elektronikoaz helaraziko zaio ikertzaile nagusiari, eskarian adierazitako helbide elektronikoaren bidez. Bost egunen epea izango du itzulpena birpasatu eta adostasuna agertzeko. Epe hau kontatzeko, aintzat hartuko da postaren gestoreak mezu elektronikoa ematerakoan emititzen duen egiaztagiria. Adierazitako epea igaro ostean, erantzunik jaso gabe, j ulertuko da ikertzaile nagusia itzulpenarekin ados dagoela.

### 15. OINARRIA. LAGUNTZAK KUDEATZEKO ORGANOA

Ikerketaren arloko Errektoreordetzak, Ikerketaren Gestio Zuzendaritzaren bidez, kudeatuko ditu deialdi honetan zehaztutako laguntzak.

**16. OINARRIA. ESKARIEN TRAMITAZIOA ETA EBALUAZIOA**

16.1. Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzako Ikerketaren Gestioako Zuzendaritzak aztertu egin zituen aurkeztutako eskaerak.

Azterketa hori amaitu ostean, IAEk webgunean argitaratuko du ebaluazio fasera igarotzeko onartutako eta baztertutako eskaeren zerrenda eta 10 egun baliouduneko epea emango die interesdunei eskaera osatu edo zuzentzeko, bai eta egoki irizitako alegazioak aurkezteko ere. Okerren zuzenketak eta alegazioak aurkeztu beharko dira 9. oinarrian eskariak aurkezteko deskribatutako bitartekoak erabilia.

Emandako dokumentazioa berrikusi eta gero, Ikerketaren arloko errektoreordetzaren webgunean argitaratuko da eskari onartu eta baztertuen zerrenda behin-betikoa. Behar den epean eta eran akatsak zuzendu ez dituztenek eskaria bertan behera utzi dutela ulertuko da.

16.2. I. modalitaterako, eskarien okerrak zuzentzeko izapidea amaitu eta gero, ikertzaile nagusiak azken txostena eskuratu ahal izango du aplikazioaren bidez, non jasoko baitira ikertaldeak kreditatutako merezimendu guztiak, eskarien inguruan egin beharreko ebaluazioaren oinarri izango baitira.

7. oinarrian deskribatu diren ebaluazio irizpideen kanpoko ebaluazio agentzia baten bidez egin ahalko da, UNIBASQ - Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia edo antzeko ezaugarriak dituen beste agentzia bat izan daitekeena. Fase horrek, gutxienez, hiru hilabeteko iraupena izango du.

16.3. II. modalitaterako, ebaluazioa IISIGn egingo da.

16.4. Ebaluazio txostenak IGBBri bidaliko zaizkio; horrek dagokion esleipen proposamena aurkeztuko dio Ikerketaren arloko errektoreordeari, eta errektoreordeak erabakia hartuko, gero argitaratzeko.

16.5. **I. modalitatea: Kalitate adierazleak eta emaitzen ebaluazioa.** IGBBk kalitate adierazleak eta emaitzen ebaluazioa ezarriko ditu laguntza gauzatzeko dagozkien epeetan, eskabidean adierazitakoaren arabera, eta zehaztuko du ekoizpen zientifikoari, prestakuntza gaitasunari, langileak erakartzeari eta funtsak lortzeari buruzko adierazle sorta.

Kopuruak zehazteko, batzordeak abiapuntu izango ditu ikertaldeak berak datorren urterako diseinatu duen jarduera planean jasotako adierazleak, bai eta aurreko urteetan erakutsitako potentziala eta deialdi honen ebazpenean jasotako finantzaketa ere. IGBBk, hala balegokio, txostenak eskatu ahal izango dizkie taldearen espezializazio arloan ospe handia eta ebaluazio esperientzia duten ikertzaileei.

Adierazle horiek laguntza onartzeko dokumentuan sartuko dira, eta 14. oinarrian ezarritako txosten teknikoan ebaluazioan erabiliko dira, deialdi honetan bi modalitateetan ikertaldean jardueraren jarraipenari buruzkoan.

16.6. II. modalitatea. Agirian sartuko da 9.2 oinarrian aipatutako konpromisoa laguntza onartzeko, eta IGZk ofizioz ebaluatuko du konpromiso hori EUSeko ikertalde finkatuen eta UPV/EHUko unibertsitate ikertaldean 2025eko eskaeran.

**17. OINARRIA. ERABAKIA**

17.1. IGBB-k behin-behineko ebazpenaren proposamena egingo du, IAEren webgunean argitaratuko dena, eskatzaile guztiek lortutako behin-behineko puntuazioa adieraziz.

17.2. I. modalitatea: Ikertzaile nagusiek eskaria egiteko baliatutako aplikazioaren bidez eskuratu ahal izango dute ebaluazio txostena.

Horrez gain, finantzaketa proposatzen zaien ikertaldeetako ikertzaile nagusiek banakako ebazpen proposamena jasoko dute posta elektronikoko bidez, eskabidean adierazitako posta-kontuan. Proposamen horrek honako hauek jasoko ditu:

- a. Ikertalde eskatzailearen identifikazioa.
- b. Esleitutako guztizko kopurua eta kontzeptuen araberrako xehetasunak.

c. Kalitate adierazleak eta emaitzen ebaluazioa.

17.3. II. modalitatea. Ikertzaileen laneratzea finantzatu nahi duen ikertaldeetako ikertzaile nagusiek banakako ebazpen proposamena jasoko dute posta elektronikoko bidez, eskabidean adierazitako posta-kontuan.

17.4. Ikertzaile nagusiek 10 egun balioduneko epea izango dute, gehienez ere, egokitzen jotzen dituzten alegazioak aurkezteko, behin-behineko ebazpena argitaratzen denetik zenbatzen hasita. Finantzaketa lortu nahi duten eskarien kasuan, epe hori zenbatzeko, kontuan hartuko da aurreko paragrafoan aipatzen den banakako ebazpen proposamena jasotzen duen posta elektronikoa entregatu izanaren egiaztagiria. Aipatutako epean alegaziorik jaso ezean, proposamena onartutzat joko da eta alegatzeko eskubidea bertan behera geratuko da.

Okerrren zuzenketak eta alegazioak aurkeztu beharko dira 13. oinarrian eskariak aurkezteko deskribatutako bitartekoak erabilia.

17.5. Epea hau iraganik, IAE-k IGBB-ri helaraziko dizkio aurkeztutako alegazioak, bertan azter daitezten eta, ondorioz, behin betiko ebazpena egiteko proposamena helaraziko dio Ikerketaren arloko Errektoreordetzari.

Ikertalde berriren baterako finantzaketa proposatzen bada, behin-behineko ebazpenean jasotakoei dagokienez, 12. oinarrian adierazitako moduan jokatuko da banakako ebazpen proposamen berriari dagokionez: ikertzaile nagusiei posta elektronikoko bidez helaraztea, 10 egun balioduneko alegazio epea irekitzea eta, hala badagokio, IGBBk ebazpen proposamena egitea.

17.6. Arestiko tramitazioak egin eta gero, IAEren webgunean argitaratuko da laguntza emateko edo ukatzeko behin betiko ebazpena eta argitalpen horrek interesdunei jakinarazteko balioko du.

17.7. Behin betiko ebazpenak administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko, inola ere aldi berean erabilia:

1.- Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Administrazio errekurtsu hori jarriz gero, eta errekurtsua jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsua isiltasun negatiboagatik ezetsi dela ulertuko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsua ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 46. artikulua).

2.- Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 8.3 eta 46. artikulua).

## 18. OINARRIA. LAGUNTZA ORDAINTZEKO BALDINTZAK

Deialdiaren behin betiko ebazpena argitaratu ondoren, esleitutako laguntzen benetako zuzkidura egiteko, laguntza onartzeko agiria jaso behar da IAEko Ikerketako Gestiorako Zuzendaritzan, ikertaldeko ikertzaile nagusiak sinatuta.

Emandako laguntzaren zuzkidura 2025. urtearen hasieran egingo da oso-osorik. Urtearen amaieran erabili gabeko zatia osorik kenduko da, nahiz eta aplikatu litekeen 5.2. oinarrian langileak kontratatzeke edo ekipamendua erosteko gastuari buruz adierazitakoa.

**19. OINARRIA. JARRAIPENA****I. modalitatea:**

19.1. Ikerketaren arloko Errektoreordetzak diru laguntza jaso duten eskaerei jarraipena egiteko prozedura antolatuko du.

19.2. **Amaierako txostena.** Jarduerak bukatu eta hurrengo hiru hilabeteetan, azken txostena egin beharko da <http://www.ikerketa-taldeak.net> aplikazioaren bidez lortutako emaitzak jasoz; ikertzaile nagusiak sinatu beharko du eta kasuan kasuko sail edo institutuko zuzendariak ontzat eman.

19.3. **Azken ebaluazioa.** Azken txostena entregatu ondoren, emaitzen ebaluazioa egingo da, ikertaldearentzat ezarritako urteko adierazleentzat betetze mailan oinarrituta.

19.4. Zerbitzu Nagusien bidez egin ez diren gastuen kasuan, jatorrizko faktura gorde beharko da ikertaldeko ikertzaile nagusiari dagokion sailean edo institutuan, eta eskuragarri izan beharko da deialdi honen kargura emandako laguntzen inguruan honako organoek, beren eskumenen babesean, egin ditzaketen egiaztapenetarako: Ikerketaren arloko Errektoreordetzak, UPV/EHUko barne kontrolerako zerbitzuak, kontrol ekonomikoko bulegoak edo Herri Kontuen Euskal Epaitegiak.

Inola ere ez da fotokopiarik onartuko jatorrizko agiriak galtzeagatik.

**II. modalitatea:**

19.5. Ikerketa Errektoreordetzak egiaztatuko du eskatutako talde berriari dagokionez 9.2 oinarrian ezarritako konpromisoak betetzen diren, eta deialdi honetan lortutako laguntzaren zenbatekoa kendu ahal izango du, konpromiso horiek betetzen ez badira.

**20. OINARRIA. EMAITZEN BERRI EMATEA ETA EMAITZEN USTIAKETA**

20.1. Ikerketaren ondorioz sortutako emaitza guztietan edo emaitzak zabaldu eta ustiatzeko argitalpen eta ekitaldi guztietan (direla ponentziak, hitzaldiak, kongresuak edo parte hartutako bestelako zientzia gertakariak edo patenteak, prototipoak edo erabilera ereduak), UPV/EHUren filiazioa ageri beharko da, bai eta erakundearen ikusizko nortasuna ere, unibertsitateak zehaztutako baldintzetan.

20.2. Ikertzaileak zein erakundetakoak diren jasota agertzeaz gain, esker onen atalean zehaztuta ageri beharko da ikerketa hori aurrera eramateko finantzazioa eman duten erakundeentzako zerrenda, eta deialdi hau berariaz aipatu beharko da.

20.3. Ikertaldearen jardueren bidez lortutako emaitzak jabetza intelektualaren edo industrialaren arloko tituluren baten bidez babestuta egon badaitezke, UPV/EHUko Jabetza Intelektual eta Industrialaren Erregimenari buruzko Arautegia aplikatu beharko da.

20.4. Ahal den bezain pronto, baina inola ere, argitalpenaren data ofizialetik hamabi hil iragan eta gero, argitara eman beharko da ADDI erakunde gordailuan ikertaldearen ikerketaren emaitza izan eta ikerkuntza argitalpen seriatu edo aldizkakoetan argitaratzeko onartu diren lan eta edukien azken bertsioaren bertsio digital bat. Nolanahi ere, gomendatzen da ADDIn argitaratzea ikertaldearen ondoriozko edozein emaitza.

**21. OINARRIA. LAGUNTZA EMATEAREN BALDINTZEN ALDAKETA**

21.1. Laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetariko bat edo beste aldatuko balitz, betiere deialdiaren helburua bete egin dela ziurtatuta, edota beste erakunde publiko edo pribaturen batek bestelako subentziorik edo laguntzarik emango balio taldeari, horrek laguntzak esleitzeko erabakia aldatzea eta kasuan kasuko kitapena egitea ekar lezake.

Kasu hauetan, ebazpena abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren 4. artikuluan (EHAA, 1992ko otsailaren 7koa), Euskal Autonomi Elkartearen Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra araututa, zehaztutako administrazio prozedurari jarraituz burutuko da, IGBBk proposatuta edo txostena eginda, banakako jakinarazpena bidaliko zaiolarik ikertaldeko ikertzaile nagusiari.

21.2. Ondorio horietarako, ulertuko da laguntza emateko oinarri izandako baldintzak aldatu egin direla, besteak beste, honelako kasuetan:

- a. Ikertaldeak uko egitea bere jarduerari, talde barruko lankidetzaren harremanak bertan behera uztea edo egiatan apurtzea, ikertzaile nagusia UPV/EHUkoa ez den beste erakunde batera joatea, edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo joatea, eta horren eraginez taldearen zuzendaritza edo aurreikusitako emaitzen lorpena arriskuan egotea.
- b. Ikertaldeak egindako jarduerak bat ez etortzea proposatutako helburu eta epeekin, horretarako Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren baimenik eduki gabe.
- c. Deialdi honetako oinarriak, guztiak edo batzuk, modu larrian urratzea.
- d. Eskaeran datuak ezkutatu, aldatu edo moduren batera edo bestera manipulatzeko.
- e. Jarduera finantzatzeko xedez egindako deialdien barne ez dauden gastuak egitea UPV/EHUk kontrataziorako ezarritako prozedura zentralizatuak bete gabe.

## 22. OINARRIA. TALDEAREN OSAERA ALDATZEA

22.1. Taldean aldaketarik egin nahi izanez gero, eskaria egin behar zaio Ikerketaren arloko errektoreordeari, aldaketa onar edo ezeztatu dezan. Ez da ikertaldean baxarik onartuko, ez bada ezinbesteko kausarengatik. Hala badagokio, taldearen aurrekontu zuzkidura alda liteke, taldetik ateratzen den pertsonari dagokion gastatu gabeko finantzaketaren zati alikuota kenduz.

Ikertzaile nagusiak jakinarazi beharko dio IAERI, laguntzak dirauen bitartean, ikertaldeko zeintzuek kide amaitzen duten UPV/EHUrekiko lotura.

22.2. Taldean egindako aldaketak -kide berrien altak edo bajak- Ikerketaren arloko errektoreordeak baimena ematen duen unetik aurre izango ditu ondorioak.

22.3. Taldeko kide kopurua gutxitzearen ondorioz gerta daiteke finantziarioa eguneratzea edo taldea bertan behera geratzea.

## 23. OINARRIA. LAGUNTZEN HARTZAILEEN LEGEZKO ERANTZUKIZUNA

Deialdi honetan jasota ez dagoen guztirako, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 lege orokorrean ezarritakoari jarraituko zaio, besteak beste, diru laguntzak itzultzeari buruzko xedapenei eta arau hauste eta zigorrei buruzko arauari.

Aurreko ondorioetarako, ulertuko da Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorrean aipatzen diren beste administrazio batzuetako organo zehatzen inguruko aurreikuspenak eskumen baliokideak dituen unibertsitateko organoaz (edo honen ahalik eta antzekoenak dituen organoaz) ari direla.

## 24. OINARRIA. IKERKETA JARDUERETAN BETE BEHARREKO PRINTZIBIOAK

24.1. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan gizakiak, gizakien lagin biologikoak eta/edo datu pertsonalak erabili nahi badira, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Aitorpenetan jasotako printzipio etikoak errespetatzea (Belmont, 1979; CIOMS, 2002; Giza Genoma, UNESCO, 1997; Oviedoko Biltzarra, 1999; eta Tokio, 2004).
- Indarreko legeria bete: 14/2007 Legea, biomedikuntzako ikerketei buruzkoa; 1716/2009 ED, biobankuei buruzkoa; 41/2002 Legea, pazientearen autonomiari buruzkoa; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide digitalak Bermatzeari buruzkoa, eta 2016/679 Erregelamendua (EB), Europako Parlamentuarena. Bai eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko UPV/EHUren Arautegia ere.
- Gizakiekin eta beren Lagin eta Datuekin Egindako Ikerketei Buruzko Etika Batzordearen (GIEB) alde aurreko eta nahitaezko aldeko txostena aurkeztu, UPV/EHUko ikerketarako eta irakaskuntza jarduerarako etika organoak arautzen dituen Erregelamenduak jasotzen duen bezala, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko Erabakiak onetsi eta 2014-2-17ko 32. EHAAn argitaratuta.



24.2. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan animaliekin esperimentatu nahi bada, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Nazioartean sustatutako ordezte, murrizte eta fintze irizpideak errespetatu.
- Animaliekin ikertzearen arloko indarreko arautegia bete (53/2013 ED).
- Animalien Ongizaterako Etika Batzordearen (CEEA) aginduzko aldeko txostena lortu, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko erabakiak, UPV/EHUko ikerketan eta irakaslanean etika organoak arautzeari buruzkoak (EHAA, 32. zk., 2014-02-17koa), jasotzen duen bezala.
- Agintari eskudunaren baimena agertu (foru diputazioen abeltzaintza saila).

24.3. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan agente biologikoak eta/edo genetikoki eraldatutako organismoak (GEO) erabili nahi badira, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Giza osasuna eta ingurumena babestearen inguruko prebentzio, zuhertasun eta informazio printzipio etikoak errespetatu.
- Arlo horretako indarreko arautegia bete (31/1995 Legea, laneko arriskuak prebenitzeari buruzkoa; 664/1997 ED, langileak eragile biologikoekin lan egitearen arriskuetatik babesteari buruzkoa; 665/1997, langileak eragile kartzinogenoekin lan egitearen arriskuetatik babesteari buruzkoa; 9/2003 Legea eta 178/2004 ED, genetikoki eraldatutako organismoen erabilera konfinatua, borondatezko askapena eta merkaturatzeari buruzkoa).
- Agente Biologikoekin eta Genetikoki Eraldatutako Organismoekin eginiko ikerketetarako Etika Batzordearen (CEIAB) aginduzko aldeko txostena lortu, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko erabakiak, UPV/EHUko ikerketan eta irakaslanean etika organoak arautzeari buruzkoak (EHAA, 32. zk., 2014-02-17koa), jasotzen duen bezala.

24.4. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan enbrioi zelula amekin edo haietatik eratorritako zelula lerroekin ikerketak egiteko beharrezkoa izango da hauek betetzea: 45/2003 Legea eta hari dagokion 2132/2004 ED, soberako aurre-enbrioietatik eskuratutako zelula amekin ikerketak egiteko baimena eskatzeko baldintzak eta prozedurak ezartzen dituen, bai eta 09/2014 ED ere, uztailaren 4koa, giza zelulak eta ehunak emateko, lortzeko, ebaluatzeko, prozesatzeko, zaintzeko, gordetzeko eta banatzeko kalitate eta segurtasun arauak ezartzen dituen.

Horrez gain, giza laginekin egindako ikerketari buruzko arau hau ere kontuan izan beharko da: 1716/2011 Errege Dekretua, azaroaren 18koa; honen bidez, alde batetik, biomedikuntzako ikerketa egiteko xedea duten biobankuak baimentzeko oinarritzko eskakizunak ezartzen dira, baita biobanku horiek jarduteko oinarritzko eskakizunak ere; bestetik, giza lagin biologikoak tratatzeko bete behar diren oinarritzko eskakizunak ezartzen dira, eta, azkenik, Ikerketa Biomedikorako Erregistro Nazionalaren funtzionamendua eta antolamendua arautzen dira. (EBO, 290. zk., 2011ko abenduaren 2koa, ostirala).

24.5. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jarduerak ezin izango dute gerrarik piztu, sustatu eta babestu, ezta, zehatzago, armak egiteko eta/edo merkaturatzeko enpresekin zuzenean edo zeharka lan egin ere.

## **AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA**

Deialdi honek administrazio bidea agortzen du eta honen kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko Administrazio Auzietako Epaitegietan, bi hilabeteren epean deialdia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Hala izanik ere, aukerazko birjartze errekurtsua jarri ahal izango da erabakia argitaratu eta hilabetearen epean Ikerketaren arloko Errektoreordearen aurrean, 39/2015 legearen 123. artikuluaekin bat etorrira.

## **AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA**

Honako deialdi hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratzerakoan sartuko da indarrean.

Leioa, 2024ko ekainaren 25ean.

Inmaculada Arostegui  
Ikerketaren Arloko Errektoreordea  
Vicerrectora de Investigación